


## Enpresen konfiantza

Ikerketa Departamentua


LABORAL Kutxa

LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2016ko bigarren hiruhilekorako dituzten espektatiben berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekoko datuen aldean emaitzek pixka bat txarrera egin badute ere. Ondoren, ondorio nagusiak azalduko ditugu labur-labur.


Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten espektatibei dagokienez, % 56,4k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 22,6k hobera egingo duela. Beraz, ikuspegi baikorra da nagusi eta, ondoren ikusiko dugunez, berdintsu pentsatzen dute azerturiko gainerako aldagaietan.




Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak onak dira, 2016ko bigarren hiruhilekoari dagokionez. % 49,5en iritziz egoerak bere horretan segituko du eta % 37,4ren ustez onera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresen kopurua % 13,1koa baino ez da.




Aurreko adierazlearekin bat, 2016ko bigarren hiruhilekoan jarduerak bere horretan segituko duela uste dutenen kopurua % 60,6koa da, eta egoerak hobera egingo duela uste dutenena % 21,8koa. Inkestatuen % 17,6ren ustez, berriz, jarduerak txarrera egingo du.




Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Dena den, emaitzen arabera, badirudi eskaera-bolumena hobetzea espero dutela. Ondorengo grafikoan ikus dezakegunez, inkestatuen % 50,2k bolumenari eustea espero du eta % 36,7k hobetzea. % 13,1ek, berriz, txarrera egingo duela uste du.



Prezioei dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek, izan ere % 76,5ek uste du prezioek bere horretan segituko dutela bigarren hiruhilekoan. Gainerako enpresetatik, % 6,9k uste du prezioak handiagoak izango direla eta % 16,6k prezioak jaitsi egingo direla.




Eragiketen errentagarritasun-espektatibei dagokienez, % 63,7k uste du errentagarritasunean ez dela aldaketarik izango, % 17,6k errentagarritasuna handiagoa izango dela eta % 18,7k txikiagoa izango dela.




Orain arte aztertutako datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa handitzeko eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen %68,5ek uste du eutsi egingo diola 2016ko 3. hiruhilekoan. % 17,6k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Beraz, inkestatuen % 13,8ren ustez, inbertsio-bolumena jaitsi egingo da.




Azkenik, enpresen %72,2k uste du enpleguari eutsi egingo zaiola, % 18,7k plantilla handitu egingo dela eta % 8,7k plantilla jaitsi egingo dela.




Inguruneari buruzko iritzia ez beste adierazleak gehitu eta Industria Konfiantzaren indizearen balioa lortzeko haztatzen baditugu, emaitza **55,3**koa da. Ondorioz aurreko hiruhilekoko datutik (**55,4**) hona, beherakada txikia izan da. Datu horretatik honako interpretazio hau egiten da: 2016ko bigarren hiruhilekoko ekonomiaren bilakaerari buruz ikuspegi ezkorragoa dutela enpresek. Gainera, indizearen balioa 50etik gorakoa izateak hedapena adierazten du, eta hori koherentea da beste esparru geografiko batzuetarako (Espainia 54,1 eta Eurogunea 52,7) lortutako balioekin.


Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurreko paragrafoan azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 61,8k uste du bere horretan jarraitu dutela eta % 20,2k hobera egin dutela. % 18k bakarrik uste du kanporako salmentek txarrera egin dutela.



Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten portzentajeari dagokionez, inkestatuen % 66,9 balio minimoetan kokatzen da (% 0 eta % 0,5 artean), eta % 5,3k dioenez, % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.



Bezeroei kobratzeko epeari dagokienez, azken urtean ez da aldaketarik izan % 76,2ren ustez. Enpresen % 16,4k, berriz, epea handitu egin dela uste du, eta % 7,5ek txikitu egin dela.



Amaitzeko, inkestatuen % 64,1en iritziz, banku-finantzaketa eskuratzeko erraztasuna ez da aldatu azken urtean. Gainerako enpresak honela daude banatuta: % 28,8ren iritziz, erraztasun handiagoa dago, eta % 7,1ek kontrakoa uste du.

